

## GIL 89 Donostiako badia



Donostiako badiaren ikuspegi panoramikoa, Igeldo mendira igotzeko bidetik.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 19' 11,28" N

Long.: 1° 59' 43,59" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 581.454,29 m

Y: 4.796.819,04 m



### Nola iritsi

Donostiaren hiri-garapenak erabat inguratua daukan egitura geomorfologiko bat da. Oinez egin daiteke perimetro osoa, Kontxako pasealekuan barrena, zeina hondartzak baino gorago baitago, Aquariumetik (ekialdean) Haizearen Orraziraino (mendebaldean).

### GILaren deskribapen laburra

Goi Kretazeoko material tupatsuetan eraikia dago Donostiako badia, eta Eozenoko hareharrizko arroka erresistenteagoak ditu ertzetan, Igeldon eta Urgullen. Gaur egun, 1.500 m-tik gorako diametroa du badiak, gehienez, ekialde-mendebalde norabidean, eta sakonune oso erregularra du hondoan. Bi hiri-hondartza daude badiaren ertzean: Kontxa eta Ondarreta.



Badiako hondarra oso fina da.

Hasieran, badia Igeldotik Uliaraino iristen zen, eta han itsasoratzen zen Urumea ibaia; hala, hezegune zabal bat sortu zen. Santa Klara eta Urgull badiako bi uharte ziren. Gero, ibaiaren ahoa ekialderantz desplazatuz joan zen, tonbolo hareatsu bat sortu baitzen, Urgull lehorreko lurrarekin lotu eta penintsula bihurtu zuena. Hala, galdu egin zuen badiak Urumearekiko lotura, eta gaur egun duen maskor-egitura hartu zuen, Santa Klara uhartea erdian duela.


Tonbolo natural hori 1 km luze da, eta badiako jito-korrontearen eta estuario-dinamikaren arteko interakzioaren erantzun gisa sortu zen. Gaur egun, hiri-egituraren azpian galduta daude erabat jatorrizko duna- eta marisma-inguruneak. Egitura hori XIX. mendearen azken laurdenetik aurrera garatu zen.

## Behatzeko punturik onena

Igeldo mendiko begiratokitik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:**
- **Gaiari dagokionez:** GIL 89, GIL 91, GIL 92, GIL 94, GIL 97.



Donostiako tonboloa, britainiarrek hiria okupatua zuten garaian (1835).

## Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Eragin antropikoak asko baldintzatzen du balorazioa. Sistema osoa baloratzen da, baina haren zati bat ez dago ikusgai gaur egun.				

## Bibliografia espezifikoa

- Cearreta, A., Irabien, M.J. eta Pascual, A. (2004): *“Human activities along the Basque coast during the last two centuries: geological perspective of recent anthropogenic impact on the coast and its environmental consequences”*. In: A. Borja eta M. Collins (arg.), *Oceanography and Marine Environment of the Basque Country*, Elsevier Oceanography Series, 70: 27-50.
- Portero, G., Salazar, A., Henar, M., Ortega, I. eta Olivé, A. (1992): *Guía de puntos de interés geológico de Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 167 or.
- Santana, R. (1966): *Géomorphologie des bassins de la Bidasoa et de l'Urumea*. Doktore-tesia, Bordeleko Unibertsitatea, 162 or.